

EUSKADIKO
ORKESTRA
BASQUE NATIONAL
ORCHESTRA



Interreg
POCTEFA



Cofinanciado por
la UNIÓN EUROPEA
Cofinancé par
l'UNION EUROPÉENNE



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hezkuntza
Educación

2024-2025 Musika Gelako programazioa

ESKOLA KONTZERTUAK

MUSIKA GELA 24-25

Musika Gelaren 2024-2025 denboraldian, apustu argia egin da derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeetan eta, oro har, haurtzaroan, kantu korala aparteko arte-adierazpen kolektibo gisa sustatzeko.

Horrela, gure eskola kontzertu proposamenek ildo gidari hori izango dute, gure hurrek eta nerabeek gure orkestra eta musikariekin batera abestuz gozatzeko aukera izan dezaten. **"Misterioa"** Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzako lehen ziklorako, **"Ilargiari kantari"** Haur Hezkuntzarako, eta **"Logelan Logale"** kantata Lehen Hezkuntzarako; horiek dira eskola-publikoarentzako hiru proposamenak. Logelan Logale proiektua nabarmendu nahi dugu. Bertan, eskola-abesbatzek ikasturte osoan zehar lan egingo dute, 2025eko maiatzean, Euskadiko Orkestrarekin batera, horretarako bereziki konposatutako kantata bat estreinatzeko.

Musika Gelan lan egiten dugu gure proposamenak pertsona guztientzat irisgarri izan daitezen.

Eskola Kontzertuen programazioaren koadro laburtua

Izenburua	Hezkuntza-etapa	Datak	Tokia	IRAKASLEENTZAKO TAILERRA	Prestakuntza instrumentala
1.- MISTERIOA	LH eta DBH	2024ko urriaren 16, 17, 18, 21, 22, 23, 24 9:45 -11:15 (2 saio eguneko)	MIRAMONGO AUDITORIUMA Iraupena: 55'	2024/09/25 12:00 MIRAMON Ana Eguizabalek gidatutako tailerra	<ul style="list-style-type: none"> • HÉLÈNE BILLARD, FLAUTA • NATHALIE DABADIE, ANNE-MARIE HARMAT, BIOLINA • JUSTYNA JANIAK-KRYMER, BIOLA • JON LARRAZ, BIOLONTXELOA • AKTOREAK: JAIONE URTASUN eta GARAZI SAN MARTIN • IRAKASLEENTZAKO TAILERRA, ANA EGUIAZABAL
2.- ILARGIARI KANTARI	HH	2025eko otsailaren 13, 14, 17, 18, 19 20 9:45 -11:15 (2 saio eguneko)	MIRAMONGO AUDITORIUMA Iraupena: 40'	2024/11/27 12:00 MIRAMON Ana Eguizabalek gidatutako tailerra	<ul style="list-style-type: none"> • AURKEZPENA, ANA EGUIAZABAL • KANTUA • BIOLINA • PIANOA • BATERIA
3.- LOGELAN LOGALE. KANTATA	LH	2025eko maiatzaren 12a 18:00 2025eko maiatzaren 13 eta 14a 12:00 Kursaal Auditoriuma	KURSAAL AUDITORIUMA Iraupena: 50'	2024/12/11 12:00 MIRAMON Ana Eguizabalek gidatutako tailerra	<ul style="list-style-type: none"> • EUSKADIKO ORKESTRA. ZUZENDARIA: JUANJO OCON • KEPA ERRASTI, ABESLARIA ETA AKTOREA • ESKOLA KORUAK + KORU PILOTUA (EASO Eskolania) • ESZENAKO ZUZENDARITZA: MARÍA GOIRICELAYA • JATORRIZKO MUSIKA: JAGOBA ASTIAZARAN • JATORRIZKO LIBRETOA: LEIRE BILBAO

I.- MISTERIOA

- *Lehen Hezkuntza (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntza (lehen zikloa)*



Proiektu honek askotariko musika eskaintzen du: intrigazko musika, modu misteriotsuan famatu egin diren melodia xumeak (gure Beethoven maitearen alaitasunaren ereserkia kasu)... Musika enigmatikoa izan daiteke!

PROIEKTUA	ESKOLA KONTZERTUAK	TAILERRA	Kontzertuak guztira
1.- MISTERIOA <ul style="list-style-type: none"> • HÉLÈNE BILLARD, FLAUTA • NATHALIE DABADIE, ANNE-MARIE HARMAT, BIOLINA • JUSTYNA JANIAK-KRYMER, VIOLA • JON LARRAZ, BIOLONTXELOA • AKTOREAK: JAIONE URTASUN eta GARAZI SAN MARTIN • IRAKASLEENTZAKO TAILERRA, ANA EGUIAZABAL • SENTSIBILIZAZIO TAILERRA, ELI ARABAOLAZA 	2024ko urriaren 16, 17, 18, 21, 22, 23, 24 09:45 11.15 Miramongo Auditoriuma	IRAKASLEENTZAKO TAILERRA 2024/09/25 12:00 MIRAMON Ana Eguizabalek gidatutako tailerra	14 Eskola kontzertu Tailer 1



EUSKADIKO ORKESTRA

Misterioa

Proiektu honek askotariko musika eskaintzen du: intrigazko musika, modu misteriosuan famatu egin diren melodia xumeak (gure Beethoven maitearen alaitasunaren ereserkia kasu)... Musika enigmatikoa izan daiteke!

Este proyecto propone música de intriga, melodías sencillas pero que misteriosamente se hacen tan famosas (como el himno de la alegría de nuestro amado Beethoven)... Y es que, ¡la música es un enigma!

Egitaraua / Programa

W.A. MOZART:

Cuarteto para flauta y cuerdas, K.285
Misericordias Domini, K.222

L.V. BEETHOVEN:

Himno Europeo
Serenata, Op.25

C. DEBUSSY:

Syrinx

J. BUYS:

Quinteto de Navidad

P.I. TCHAIKOVSKY:

Danza china (Cascanueces)

NATHALIE DABADIE*

biolina / violín

ANNE-MARIE HARMAT*

biolina / violín

JUSTYNA JANIAK-KRYMER*

biola / viola

JON LARRAZ*

biolontxelo / violonchelo

HÉLÈNE BILLARD-ALIROL*

flauta

MIKEL CAÑADA

gidoia / guión

JAIONE URTASUN

GARAZI SAN MARTIN

aktoreak / actrices

* Euskadiko Orkestraren kidea
Miembro de Euskadiko Orkestra

II.- ILARGIARI KANTARI.

Eskola kontzertua, Haur Hezkuntza 3-5 URTE



Kantari zahar baten eta bere oroitzapenen eskutik, euskal musika herrikoia hainbat doinu entzungo ditugu, baita gizakiak lehen aldiz ilargia zapaldu zuen garai bikaineko abesti ospetsuak ere. Istorioak, abestiak eta melodiak berraurkitu, hauek entzun eta elkarrekin gozatu eta abestuko dugu.

Ilargiari Kantari sinopsia

Amona bat bere besaulkian eserita dago, irratia entzuten. Bere irratsaio gogokoenaren sintonia irradian dago (Gure orkestraren grabazioa entzuten da, Guridiren euskal melodiak interpretatuz, 7.a, "De Ronda"). Irratsaioa hasten da, eta egun horretan hirian hainbat kultura-jarduera programatuta daudela jakinarazten du; besteak beste, bertan gauden kontzertua. Halaber, egun horretan 1969an gizon batek ilargia zapaldu zuen lehen aldia ospatzeko jarduerak daudela jakinarazten du irratia. Urte horrek, 1969ak, hainbeste oroitzapen ekarri dizkio amonari... Honek, orduan, publikoari begiratu eta biloba balitz bezala bere izenez hitz egiten dio. Urte hartan, 1969an, duela 56 urte, 20 urte zituen, eta jendaurrean abestu zuen lehen aldia izan zela kontatzen dio. Amonak, bere istorioa berresteko asmoz edo, abesti baten melodia bati ekiten dio... (amona argitzeari utzi eta abeslari gazte bat agertzen da eszenatokian, kontzertuz jantzita, eta amonaren melodiari heltzen dio berriro pianoaren laguntzaz).

Errepertorioa

Hemendik aurrera, amonak bere bizitzari buruzko istorio batzuk kontatuko dizkio publikoari, baita ilargiari buruzkoak ere, lu rren alaba eta eguzkiaren arreba baita euskal mitologiaren arabera. Musika-lanak tartekatuko ditu, batzuk ilargiarekin lotura zuzena izango dutenak, eta beste batzuk musika-ezaugarriengatik bakarrik aukeratuko dira. Abestiak Aita Donostiaren eta Azkueren kantutegietatik aterako dira, eta obra instrumentalek garai hartako doinu batzuk ere barneratuko dituzte, hala nola Charles Chaplinen "Candilejas", ahotsarekin, biolinarekin eta pianoarekin, edo Bart Howarden "Fly Me to the Moon" abestia (1964ko Frank Sinatra ren bertsioak lotura estua izan zuen Apolo Ilargiranzko misioekin), gure publikoaren adinera egokitutako bertsioetan.

PROIEKTUA	ESKOLA KONTZERTUAK	TAILERRA	Kontzertuak guztira
2.- ILARGIARI KANTARI			
<ul style="list-style-type: none"> • AURKEZPENA (ANA EGUIAZABAL) • KANTUA • BIOLINA • PIANOA • BATERIA 	<p>2025eko otsailak 13, 14, 17, 18, 19 20 Miramongo Auditoriuma</p> <p>(sesio bikoitza 9:45 eta 11:15)</p> 	<p>Irakasleentzako tailerra 2025/11/27 12:00 Miramon</p>	12 Eskola kontzertu

III.- LOGELAN LOGALE

(Dokumentu honetan publiko gisa joan nahi duten ikastetxeei baino ez zaie jakinarazten, eta ez orkestrarekin batera abestuko duten parte-hartzaileei; hala ere, baliteke bi egoeretan dauden ikastetxeak egotea, eskola-abesbatza gisa parte hartzen dutenak eta publiko gisa bertaratzen direnak).



- **Lehen Hezkuntzako** Eskola kontzertuak (publikoa)
- **Lehen Hezkuntzako 5. eta 6.** mailako eskola-abesbatzen parte hartzea

Non dago errealitatea eta ametsaren arteko muga? Zenbat denbora eta zer pisu hartzen dute ametsak gure egunerokoan? Lo gaudenean eta esna gaudenean egiten ditugun ametsak leku berera doaz?

Protagonista bere ohean sartzen da eta saiatzeko arren ezin da lokartu. Egunari erreparoa egiten dio eta nekatuegi sentitzen da bere gorputza eta burua loari emateko.

Doinu eta kantu ezberdinen bidez kontatu eta kantatuko dugu, gutako bakoitzak ohera joaten den unetik eta esnatu arteko istorioa. Lo eta ametsaren fantasiari, bakoitzak bere doinua jartzeko, lo gaudenean ere abenturak bizi ditugulako.

Kantata honetan gau "fantasiatsu" batean gertatzen dena kontatu eta kantatu nahi dugu, eta lo gaudela uste dugunean bizi ditugun abenturak musikalki kontatu.

PROIEKTUA	ESKOLA KONTZERTUAK GIPUZKOAN	IRAKASLEENTZAKO TAILERRA	Kontzertuak guztira
<p>III.- LOGELAN LOGALE (Kantata)</p> <ul style="list-style-type: none"> • EUSKADIKO ORKESTRA ZUZENDARIA: JUANJO OCON • KEPA ERRASTI, ABESLARIA ETA AKTOREA • ESKOLA KORUAK + KORU PILOTUA (EASO Eskolania) • ESZENAKO ZUZENDARITZA: MARÍA GOIRICELAYA • JATORRIZKO MUSIKA: JAGOBA ASTIAZARAN • JATORRIZKO LIBRETOA: LEIRE BILBAO <p>Artis+</p>	<p>2025eko maiatzaren 12a 18:00</p> <p>2025eko maiatzaren 13a, 14a 12:00</p> <p>Kursaal Auditoriuma</p> 	<p>Irakasleentzako tailerra 2024/12/11 12:00 Miramon</p>	<p>3 Eskola kontzertu Donostian</p>

ENTSEGU IREKIAK



Musika Ikaslegoa / Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikaslegoa, beste kolektiboak eta HHE

DATA	ORDUA	ZUZENDARIA	PROGRAMA	TOKIA
2024/11/15 Ostirala	11:00 – 12:00	KRISTIINA POSKA Zuzendaria	Pelléas et Mélisande , op.80. Suite (Fauré) Kontzertua re minorrean biolin eta orkestrarako (Schumann)	KURSAAL AUDITORIUMA
2025/01/24 Ostirala	11:00 – 12:00	LUKASZ BOROWICZ Zuzendaria	Sorginen soinua (Arzamendi, Beatriz) 2. zk. kontzertua sol minorrean piano eta orkestrarako , Op. 22 (Saint-Saëns, Camille)	KURSAAL AUDITORIUMA
2025/03/13 Osteguna	11:00 – 12:00	CHRISTOPH-MATHIAS MUELLER Zuzendaria	Perkusio eta orkestrarako kontzertua (Glanert, Detlev)	KURSAAL AUDITORIUMA

Informazio gehiago eskatu, ekarpenen bat egin edo gure proposamenetariko batean parte hartzeko, jar zaitez Euskadiko Orkestraren Hezkuntza Departamentuarekin harremanetan:

Mikel Cañada

musikagela@euskadikoorkestra.eus

euskadikoorkestra.eus



**Interreg
POCTEFA**



Cofinanciado por
la UNIÓN EUROPEA
Cofinancé par
l'UNION EUROPÉENNE

ARTIS+ proiektua Europar Batasunak finantzatu du %65ean Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2021-2027) Programaren bidez. POCTEFAren helburua Espainia-Frantzia-Andorra mugaldeko integrazio ekonomiko eta soziala sendotzea da.